



MERKATU TXIKIKO DIRUA NIKARAGUARA

5.500 euro bildu dituzte, uste baino gutxiago, baina hala ere, «gustura» daude Amarotz Auzo Elkarteko kideak 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-03-18

VIII. URTEA 1.955. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ABEL BARRIOLA PILOTARIA

«Pixkanaka joan behar da, ez da buruz burukoan pentsatzeko garaia»

LEITZA Hamaika hilabete eta gero, Amazabal pilotalekuan jokaturako lehen partidari «gozatzen» saiatu zela dio

BIGARRENA Geldialdiaren osteko hurrengo partida bihurtan jokaturako du Eibarko Astelena pilotalekuan 5



Eskualdeko gizarte eragile desberdinetako ordezkari ugari bildu zen atzoko agerraldian. A. IMAZ

TOLOSALDEKO «KLASE IZAERAKO HERRI PLATAFORMA» ABIAN

TOLOSA «Aldaketa sozialaren alde» egiteko jaio den taldeak abiapuntua zehazteko batzarra egingo du hilaren 24an Bonberenean 2

Herenegun heldu zen Edurne Pasaban Annapurnako oinarritzko kanpalekura

TOLOSA Egun batzuk girora egokitzen egon eta gero iritsi zaie erronkari aurre egiteko unea; hilabete inguruko epean iritsiko dira gailurrera 3



Ugane auzoan hasi dituzte jada AHTren lanak. E. MAIZ

Iritsi dira Abiadura Handiko Trenaren lanak eskualdera

AZPIEGITURAK Ugane auzoan zuhaitzak errotik moztu dituztela salatu du AHT Gelditu!-k 7

Jon Anzaren «hilketa» salatzeke Mobilizazio Eguna gaur

POLITIKA Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ekimenak debekatu zituen atzo 2

Aurrera eta Aurrera-Saiaz Berria Txapelketako finalerdietan

PILOTA Kadeteetan, jubenetan eta seniorretan lehiatuko dira bihar 4

Tolosaldeko 'Herria abian!' edo «klase izaerako herri plataforma»

Tolosa » Aldaketa sozialaren abiapuntua «zehazteko» batzar irekia egingo dute hilaren 24ean, Bonberenean.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko *Herria abian!* ekimenak prentsa agerraldia eskaini zuen atzo Tolosako Kultur Etxean. *Euskal Herriak aldaketa soziala!* lelopean, *Herria abian!* bera aurkeztu zuten lehenik, ondoren aldaketa sozial horren inguruko datuak plazaratzeko. Ekitaldian eskualdeko hainbat gizarte eragile eta norbanako elkartu ziren, besteak beste, Emusi, SAM eta Munskjö-ko LABeko ordezkariak, EHNEko ordezkaria eta Gazte Mugimenduko kideak.

Lehen urratsak ematen hasteko edo «aldaketarako abiapuntua zehazteko», hilaren 24ean Tolosako Bonberenean 19:30ean batzar irekia egingo dutela iragarri zuten.

Zer da 'Herria abian!'?

«Krisia delakoaren aitzakian paitzen ari garen erasoaldi atzerakoari aurre egiteko, aldaketa so-



Eskualdeko gizarte eragile desberdinetako ordezkariak atzo, Tolosako Kultur Etxean. A. IMAZ

zialaren alde sortu dugun herri plataforma da». Horrela aurkeztu zuten euren burua eragile desberdinetako ordezkariak.

Nortzuk osatzen dute?

«Klase izaerako plataforma honean, Euskal Herriko ezkerrek erantzun bateratu bat eman behar duela uste duen orok aurkituko du

leku». Multzo horretan sartu zizuten eragile sindikal, sozial eta norbanakoak. Ondoren, *Herria abian!* ekimenak «indar metaketa-rako gunea» izan nahi duela azaldu zuten: «Oinarrizko adostasunak lortuta, Euskal Herrian bizi dugun egoera sozioekonomikoari erantzun bateratua emateko. Hasi- siera batean, manifestu baten in-

guruan metatu ditugu indarrak talde edo norbanako bakoitzaren zehaztasunetik haratago, orokortasunari erantzuna emateko. Ondoren, gure jarreratik errealitatearen diagnostiko bateratu bat egin dugu eta azkenik munduko komunitatearen barruan Euskal Herri-rako alternatiba herritarra osatu nahi dugu».

Helburuak lortzen laguntzeko *Herria abian!* «tresna» bezala deskribatu dute. Herri plataforma honen ondorengo helburuen garapenean lagun dezakeela ere aipatu zuten atzo ekimenaren sustatzaileek:

» 'HERRIA ABIAN!'

«Helburua hauek lortzen laguntzeko tresna»

- «Eredu kapitalista auzitan jarri eta bestelako Euskal Herri baten alde egitea».
- «Aldaketa hori gauzatzeko Euskal Herriak behar dituen tresnak aldarrikatzea».
- «Egungo eredu ekonomikoak langileontzat dakartzan kalteak eztabaida sozial eta politikoaren lehen planoan kokatzea».
- «Aldaketa sozial horren funtsezko elementuak identifikatu, gizarteratu eta horren aldeko indar metaketa bultzatzea. Euskal Herri-rako herri alternatiba osatzea».
- «Krisiaren aitzakian patronalak eta gobernuak hartzen ari diren neurriak salatzea».
- «Egungo egoeraren arduradunak argi eta garbi identifikatu eta interpellatzea: patronala, gobernuak, banketxeak, espekulatzailak...».
- «Aurreko guztia bideratzeko, herri sektoreen antolakuntza eta mobilizatorako esparruak zabal-tzea».

Euskal Herriko Mus Txapelketarako prest

Kultura » Txapelketa etzi jokatu da Seguran; Leitzaldeko eta Tolosaldeko bederatzik bikote egongo dira bertan.

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, etzi, Euskal Herriko Mus Txapelketaren Finala jokatu da Seguran. Euskal Herri osoko 128 bikote bilduko dira bertan: Arabatik 16, Bizkaitik 16, Nafarroa Garaitik 32, Gipuzkoatik 32, Lapurditik 16, Behe Nafarroatik 12 eta Zuberoatik 4.

Herrietako ordezkariak 09:30erako Segurako plazan kokatu den karpara agertu behar-ko dute, kanporaketak bertan jokatuko baitira.

Leitzaldetik eta Tolosalde- tik ondorengo bikoteak egongo dira

etzi Seguran: Juan Bau eta Unai (Leitza); Agirre eta Axi (Amezketal); Naiketa eta Latu (Amezketal 2); Mikel Urkola eta Joxe Mari Urkola (Anoeta 1); Julen Artieda eta Asier Goiaran (Anoeta 2); Iban eta Ibai (Berastegi); Joxe Ramon Elurbe eta Koxme Elurbe (Lizartza); Aitor eta Jexux (Orexa) eta Ander Abellana eta Xabier Urkizu (Tolosa).

Herrialde bakoitzeko txapeldunak

Musean hasi aurretik, 09:30ean, herrialde bakoitzeko txapeldunak oholtza gainera igoko dira. Bertan sari banaketa ekitaldia egingo da. Amaieran, Mus Txapelketaren nondik norakoak azalduko dituzte. Ondoren hasiko da Euskal Herriko Mus Txapelketaren finala. Egun guztian zehar jokatu-ko dituzte kanporaketak.

Mobilizazio Egunean «kalera ateratzea» eskatu du AAMk

Politika » Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan elkarretaratzeak eta manifestazioak antolatuta dituzte gaurko.

ERREDAKZIOA

Jon Anzaren senideek, Amnistiaren Aldeko Mugimenduk, *Non da Jon?* plataformak, abokatuek eta beste hainbat eragilek lehengo larunbatean, Baionan egindako agerraldian, Mobilizazio Eguna deitu zuten gaurko. Tolosaldean eta Leitzaldean deialdiarekin bat egin dute hainbat herritarrek eta elkarretaratzeak edo manifestazioak antolatuta dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Herrizain- go Sailak berriaz, atzo mobilizazio- ak debekatu egin zituen. Haren

arabera, «terrorismoa goratuko da ekitaldi horietan».

AAMren erantzuna

Debekuaren berri jakin ostean, Amnistiaren Aldeko Mugimenduk «gerra zikinaren eta errepresioaren aurrean kalera ateratze-ko» deia luzatu zuen atzokoan. Horretaz gain, Espainiako gober- nua salatu zuen: «Jon Anza euskal militante politikoaren gorpua agertu denetik espainiar gobernu- a kontrolpean dituen errepresio-ko aparatuen bidez gerra zikina garbitu nahian ari da». «Azken egunotan ikusi duguna ikusita a- gerrikoa da arduradun politiko ha- uen urduritasuna. Jon desagertua egon den bitartea errazaizan da di- ruarekin alde egin zuela eta antze- koak botatzea, ohikoa duten ha- rrokeriaz. Baina Jonen gorpua

agertu da eta Euskal Herrian inork ez du sinistu bertsio ofiziala. Ho- rregatik daude urduri, eta horre- gatik ari dira hilketa hau salatzen ari garenon aurka mehatxuka».

» MOBILIZAZIO EGUNA

Gaur, hilak 18

- **Alegia.** 19:30ean Tontokalen el- kartuko dira.
- **Amezketal.** 19:30ean Abaltz- ketako bidegurutzean elkarretara- tzea.
- **Ibarra.** Tolosako deialdiarekin egin dute bat.
- **Leitza.** Kale Nagusian 20:00etan elkarretaratzea.
- **Tolosa.** Triangulotik abiatuta manifestazioa 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan Errebot- e Plazan manifestazioa.

@ Zurea da Hitza. Sartu gure web orrian, *Zurea da Hitza* atalean. Bertan zure herriko edo inguruneko albisteak idazteko aukera edukiko duzu. Horretaz gain, iritziak, salaketak, kritikak... sarean zintzilikatzeko parada eskaintzen dizu gure web orriak:

www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Eskaintza.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogle bezala lan egin- go nuke. 662 49 40 78.

■ Ilepaindegirako laguntzailea.

Ibarako ilepaindegi batek laguntzailea behar du. metxa2@yahoo.es

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Aurreikuspenak bete ez arren, «gustura» lortutakoarekin

Elkartasuna » 5.500 euro bildu dituzte Amarotz Auzo Elkartearen Merkatu Txikian; nikaraguarrei laguntzeko baliatuko dute.

INIGO TERRADILLOS

Amarozko Auzo Elkarreak antolatutako Merkatu Txikia hartu zuen pasa den astean Tolosako Kultur Etxeak. Sei egunez zabalik egon etagero, igandean itxi zituen ateak, eta egun horietan guztietan lortutakoa zenbatuta, balantze «baikorra» egin dute antolatzaileek. Ez dute aurreikusitakoa betetzetik lortu, baina, «gustura» azaldu dira, batez ere, «herritarrek emandako laguntzarenatik».

Guztira, 5.500 euro bildu dituzte Merkatu Txikian saldutakoarekin. Nikaraguan duten hezkuntza proiektua bultzatzeko 9.000 euro

behar dituzte, horregatik, kopuru horretara iristea lortu ez dutenez, beste ekimen batzuk jarri beharko dituztela abian adierazi dute antolatzaileek.

Hori bai, bildutakoarekin «pozik» daude Amarotz Auzo Elkarreko kideak: «Proiektua bultzatzeko oso lagungarri izango zaigu kopuru hori, horregatik, era batera edo bestera parte hartu duten herritarrei eskerrak eman behar dizkiegu; halaber, guretzat oso pozgarria da Tolosan Hirugarren Munduarekiko elkartasunak bizirik jarraitzen duela ikustea».

Jasotako babesak Nikaraguako proiektuaren alde lanean jarraitzeko indarra ematen diela azaldu dute, horregatik, Tolosan antolatzen diren San Joan jaietako eta Gabonetako Azoka Berezietan izango dira beste urteetan bezala. Bestalde, Kutxan duten kontu korronte zenbakia (2101 0081 1501



Lehenengo egunetik gerturatu zen jendea Kultur Etxean jarri zuten Merkatu Txikira. I. TERRADILLOS

2441 0788) mantendu egingo dute, «norbanakoez nahi eta ahal duten laguntza eman dezaten, guztiak baitira ongietorriak».

Hezkuntza proiektua

Nikaraguako Larreynaga-Malpaillo udalerriko 20 emakumeri zuzenduriko hezkuntza proiektura bideratuko dute Amarotz Auzo Elkarreko Merkatu Txikian lortutako dirua. Hain zuzen ere, 18 eta

50 urte bitarteko 20 emakumeri goi-mailako ikasketak egiten jarraitzea lortu nahi dute.

Emakume hauek Xochilt Acalt Emakume Antolatuen Zentroak antolatutako programen barruan daude eta ekoizpen lanetan eta udalerriko komunitate desberdinak sustatzen eta babesten lan handia egin dutelako nabarmendu dituzte. 20 emakumetatik 13k Nekazaritzako Goi Mailako Teknika-

ri ikasketekin jarraituko dute eta beste zazpiak albaitaritzako ikasketak hasiko dituzte. Horretarako, Nikaraguako Unibertsitate Autonomora, Leonera, joan beharko dute. 9.000 euro behar dira hori posible egiteko.

Gehienek euren ikasketak, alfabetatze eta oinarrikoetatik hasita, tolosarrek Amarotz Auzo Elkartearen bidez emandako laguntzaren bidez egin ahal izan dituzte.

Laburrak

Bizkarrezurra zaintzearen garrantziaz hitzaldia

OSASUNA » Zure bizkarrezurra zaintzuz osasuna lortu hitzaldia izango da datorren ostiralean, hilaren 26an, 19:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian. Juan Alonso kiropraktikan doktoreak emango du.

Lau film ikusgai, asteburuan Leidorren

ZINEMA » Lau pelikula izango dira ikusgai asteburu honetan Leidor aretoan. Bihar, 17:00etan *Tiana y el sapo* gazte txontzako filma izango da. Zine forumaren barruan, 19:30ean *Mi vecino Totoro* filma emango dute ohi bezala oinarriko bertsioan, eta 22:30ean *El hombre lobo* izango da ikusgai. Etzi ere *El hombre lobo* emango dute bi saiotan, 19:30ean eta 22:30ean. Igandean *Tiana y el sapo* emango dute 17:00etan, eta *Invictus* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen egunean, *Invictus* filma izango da ikusgai, 20:30ean.

Sagardoetxera irteera antolatuta du Harizpek

AISIA » Hernaniko Sagardoetxera irteera antolatuta du Harizpe elkartek, hilaren 30erako. Izena emateko, bazkideek 33 euro eta ez bazkideek 36 ordaindu beharko dute, hilaren 25a baino lehen.

Annapurnarako espedizioari ekin diote

Kirola » Herenegun heldu ziren oinarriko kanpalekura Edurne Pasaban eta bere taldekideak.

ERREDAKZIOA

Egun batzuk girora egokitzen igaro ostean, erronkari aurre egiteko unea iritsi da Edurne Pasaban eta bere taldekideentzat. Herenegun Annapurnako oinarriko kanpalekura iritsi ziren, eta hilabete inguruko epean espero dute gailurra egitea.

Lehen eguna oinarriko kanpalekura atontzen igaro zuten; denak jarri, argikuntza, janaria anto-

latu... bertako egonaldia ahalik eta erosoen izateko egin beharrekoak egiten, alegia. *Puja* izenekoa ere egin zuten. Eskalatzeko hasi aurretik jainkoei egiten zaien eskaintza da hori. Tolosarrak azaltzen duen bezala, «sherpek aldare modukoa egin zuten, eta ohitura den moduan guztia espero bezala irten dila eskatu diegu jainkoei; horrez gain, gure otoitzak banderatzetan idatzi ditugu, eta ondoren kanpalekua horiek inguratu dugu».

Eguraldiak laguntzen badu gaur lehen kanpalekurako bidea ireki nahi dute. «Arrokaz beteriko zati batean 400 metro soka jarri beharko ditugu, baina bestela, ez da bide zaila», azaltzen du Edurne Pasabane.



Annapurnako oinarriko kanpalekua, herenegun. RTVE 'AL FILO DELO IMPOSIBLE'



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera

Finala zeinek jokatuko duen erabakiko da biharko derbyan

Pilota » Tolosaldeko Aurrera-Saiatz eta Leitzako Aurrera elkarteek Berria Txapelketako finalerdia jokatuko dute Beotibarren.

IMANOL GARCIA

Berria Pilota Txapelketak beste derby bat eskainiko die zaletuei. Tolosaldeko Aurrera-Saiatz eta Leitzako Aurrera elkarteek finalerdia dute bihar, 10:30ean, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Norgiagokoa gogorra aurreikusten da eta hiru partidak maila handikoak izango direla espero dute elkartetako arduradunek.

Aurrera-Saiatz elkartetik Labakak eta Elustondok jokatuko dute kadete mailan. Jubeniletan Urbietan eta Zinkunegi ariko dira. Nagusien mailan Renobales eta Galarra izango dira jokatuko dutenak. Aurreratik kadeteetan Olano eta Hernandorena ariko dira. Jubeniletan Jaunarena anaiak izango dira jokatuko dutenak. Nagusietan Esainek eta Iriartek jokatuko dute.

Faborito nagusirik ez

Luis Galarraga Aurrera-Saiatzeko arduradunak dioenez, leitzarrek «talde polita dute, orekatua». Berria Txapelketan nagusien mailako partidak garrantzi berezia du

eta lehia hori «osogogorra» izango dela aurreikusten du Galarragak: «Beraiek aurrean Esain dute, profesionala izandakoa, eskarmentu handikoa». Prestatzaile bidanararen ustez lehenengo partidak asko baldintzatu dezake finalerdia. «Irabazten bada edo gutxigatik galtzen bada adore handia ematen die beste bi bikoteei».

Pakito Sagastibeltza Aurrerako arduradunetako batek zehazten duenez, «txapelketa guztiak bezala, pausoak aurrera ematen direnean, orduan eta aurkari gogorra goa topatzen duzula. Aurrera-Saiatz aurkari oso gogorra da. Hiru bikoteak begiratuta, oso onak ditu. Lehengo urteko irabazleak dira ere». Halere, «partida guztiak jokatuko egin behar direla» dio prestatzaile leitzarrek eta «gu esperantza osoarekin goaz. Ez dakigu zer egingo dugun, baina hiru mailatan irabazi behar badute lanak ongi egin beharko dituzte. Ez naiz aursartuko esatera maila bakoitzean zer egin dezakegun, baina aurrera ateratzeko aukerak baditugu eta horiek aprobetxatzen saiatuko gara». Beste finalerdia Galdakao eta Andoainen artekoa izango da. Bai Galarragak eta bai Sagastibeltzak Galdakao koska bat gorago ikusten dute Andoain baino eta finalera iristeko aukera gehiago ematen dizkiote.



Aurrera-Saiatz elkarteek Zazpi-Itturri elkarteoei irabazi zien Alegian jokatu zen final laurdenetako partida. Goiko argazkian, ezkerretik, Aurrera-Saiatzeko Elustondo eta Labaka eta Zazpi-Itturriko Artola eta Nazabal Behean, ezkerretik, Zazpi-Itturriko Leunda eta Olaetxea eta Aurrera-Saiatzeko Galarraga eta Renobales. PATXI RENOBALS

G Gutunak

Ibarrako herritarrok Udala salatu dugu epaitegian

Ibarrako talde eta elkarte gehienok, salaketa judiziala ipintzea erabaki dugu herriko Udalaren aurka, ordenantzak onartzeko prozedura ez betetzearen. Ordenantza hauek 2009ko abenduaren 15eko Udalbatzan onartu ziren, baina afera lehenagotik zetorren.

Azaroaren 2an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, egun batzuk lehenago Ibarren onartutako bi udal ordenantzak berri ematen ziren. Bata txosnak arautzeko zen, bestea diru-laguntzak. Alegazioak aurkezteko epea ere finkatzen zen, 30 egun baliodunen barruan, hau da, abenduaren 7a baino lehen.

Ordenantza hauek kezka handia piztu zuten herriko talde ezberdinen artean. Izan ere, gaur egun txosnak ipini edota subentzioak jasotzen ditugun talde askok arazoak izango ditugu hementik aurrera. Alde batetik, ordenantzak oso zorrotzak direlako eskakizunetan, eta bestetik, mentoko udal agintarien esku uzten duelako erabakitzeo ahalmena, oso modu subjektibo edo zabalean, alde bateko interpretazioei atek zabalduz.

Egoera ikusita, herriko talde

gehien-gehienok, hogeitau guztira, elkarte eta ordenantzak aztertzeari ekin genion. Guztion artean ados ipini eta bi testu adostu aurkeztu genituen alegazio moduan, ordenantza bakoitzeko bana. Abenduaren lehen aurkeztu ziren; epe barruan beraz.

Bertan, zentzuzko eskaerak egingen ziren. Lehenbizi, ordenantza hauek martxan ez jartzea, eta bigarrenik, Udalak dioen bezala, arauak berritzeko premia izanez gero (ez dugu uste), talde guztiakin balizko kezka edo arazoak konpartitzea, guztiak adostutako araukin ordenantza berri bat egingeko behar izanez gero. Beti adostasunean eta sekula ez inposaketan.

Gauzak horrela, abenduak 15ean, gaia Udalbatzan tratatu zen. Guztion harridurarako, Txelo Romeo alkateak, alegazioak ez zirela onartuko esan zuen. Arrazoiak: epe kanpo aurkeztu omen zirelako. Han geunden lekukoek hori argi entzun genuen, eta HITZAKO kazetariak ere halaxe jaso zuen biharamunean azaldu zen informazioan. Haserrea nagusitu zen.

Eta haserrea hurrengo egunean areagotu egin zen. Udalak idatzi bat helarazi zien alegazioak aurkeztu zituzten zenbait talderi. Ber-

tan ipintzen duenez, behin alegazioen edukiak aztertuta, ez onartzea erabaki zuten. Idazkariak jasotako akta ere ildo beretik doa.

Gure galdera begi-bistakoa da: zertan geratzen gera? Alegazioak ez ziren onartu epe kanpo zeudelako edo edukietan ados ez zeudelako? Bi arazoiak batera ezinezkoa da.

Txelok gezurra esan zuen Udalbatzan? Edo beraien hanka sartzeaz jabetuta hurrengo egunean akatsa konpontzea erabaki zuten?

Edonola, gauza bat argi dago: plenoan esandakoak eta aktan jasotakoak gauza ezberdinak dira.

Hau honela izanik, kaltetuak izan gaitezkeen herriko taldeok salaketa judiziala ipintzea erabaki dugu. Prozesu judizialak luze joko du, urte pare bat agian eta gure esperantza guztiak ez ditugu horretan kokatuko, ezta gutxiago ere, baina herritarren aurrean gure planteamenduen seriotasuna azaltzeko balioko duela uste dugu.

Datozen asteetan ekimen ezberdinak antolatuko ditugu egoera hau salatzeko eta herritarrek bertan parte hartzea deitzen ditugu. Ibarbarrok hainbeste errespetu merezi dugulako!

Oihana Lopetegui. Ibarrako hainbat talde eta elkarteren izenean.



Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Uri kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gutxi ezagutzen zituen datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

eskaintza berezia
BERRIAren eskutik

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Aukera ezazu,
BIZI EUSKARAZ
berria

E Elkarrizketa

ABEL BARRIOLA ▶ Pilotaria

«Itxaropen guztia dut buruz burukoan egongo naizela»

Pilota ▶ Hamaika hilabeteko geldialdia eta gero frontoietan da Barriola; oraindik erabakitzeke dago banakako txapelketan izango den ala ez.

ESTI EZEIZA

Belauneko lesio baten ondorioz, ia urtebetez pilotalekueetatik kanpo, txuriz jantzi gabe, egon da Abel Barriola. Errekuerazio lan luze baten ostean, joan den ostiralean, Leitzako Amazabal pilotalekuan egin zuen berragerpena. Herriaren eta herritarren berotasunean jokatu zuen lehen partida, eta hemendik aurrera, gainontzeko frontoietan ere, sasoiari dagoela erakutsiko du. Hurrengo partida bihar bertan jokatuko du Eibarko Astelenan. Berasaluzer VIII.aren batera, Aritz Lasa - Mendizabal II. osatutako bikotea izango ditu aurkari.

Hamaika hilabetetan frontoietatik kanpo egon ostean, berragerpenean, zein sentsazioekin geratu zinen?

Sentsazio onarekin. Gauza guztien gainetik, garrantzitsua zen pilotan jokatzen hasia. Gainera nire jokoa erekin pozik geratu nintzen eta hori zen lortu nahi nuen. Azken batean, emaitzak berdin zidan. Nahiz nuen zen belaunak ongi erantzutea, eta horrela izan zen. Belaunak ongi erantzun zuen, eta beraz oso gustura nago. Orain jada, pilotaren errutina horretan sartu naiz, eta pozik nago.

«Oraindik denbora beharko dut eta lan handia egin nire maila onenean jartzeko»

«Berragerpeneko eguna, ostiralekoa, kirolari bezala beti eramango dut oroimenean»

Beldurrak uxatu dituzu beraz?

Bai, bai. Baina normala den bezala ehuneko ehunean jartzeko oraindik falta zait. Oraindik denborabeharko dut nire maila onenean jartzeko. Horretarako lan handia egin beharra daukat, baina hori egiteko prest nago. Egia esan, belauneko arazoak pixka bat atzean utzi ditut. Baina azken batean, errehabilitazio hori prozesu bat

da, eta hor alde garrantzitsu bat, partidak jokatzen hastearena da. Orain, honela izan da, partidak jokatzen hasi naiz, eta behar dudana denbora da, oraindik belauna hobeto jartzeko. Hala ere, behintzat, beldurrak alde batera utzi ditut.

Errehabilitazio prozesua amaitu duzu beraz?

Orain prestakuntza fisikoa ari naiz egiten. Hala ere, normala den bezala, kontuz ibili beharra daukat. Bestalde, prestakuntza fisiko horren baitan, ariketa asko belauneko lesioei aurre hartzeko eta hauek indartzeko dira. Hemendik aurrera, belaun hori hobeto zaindu beharko dut. Baina jada normaltasunez, eta beste pilotariekin ari naiz lanean.

Uste baino hobeto erantzun al dizu belaunak?


Belaunak ongi erantzun du. Banezien lan handia egiten ari nintzela belaunarekin, eta txuriz jantzeko moduan nengoela. Egia da hala ere, beldur pixka bat banuela, baina hau jokoarengatik zen. Horrenbeste denboran geldi egon ostean, zaila da jokoz ongi egotea. Dena den, belauna banekien askoz hobeto zegoela.

Itzulerara, etxean, Leitzan izateak, bereziago egin al zuen?

Denbora askoan pilotalekueetatik kanpo egotean, itzulerara eguna, edozein tokitan izanda ere, berezia da. Lesio luze baten ostean, berriro jokatzen duzun eguna, oso berezia eta polita izaten da. Lehen partida hau norberaren herrian jokatzeak berriz, oraindik bereziagoa eta politago egiten du. Gozatzen saiatu nintzen egun hori, eta kirolari bezala, une hori oroimenean eramango dut beti.

Hurrengo partida, bihar jokatuko duzu Astelena pilotalekuan. Nola ikusten duzu Eibarkoa?

Hemendik aurrera, partidaz partida joan behar dut, eta denak ere zailak izango dira. Lehen esan bezala, hau bide bat da, horretan nago, eta nire ilusioa ahal dudana egiteko prest nago. Egia esan, belauneko arazoak pixka bat atzean utzi ditut. Baina azken batean, errehabilitazio hori prozesu bat



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

kit, normala den bezala, oraindik ez nagola joko puntu onenean, eta ez da arraroa izango datozen hila-beteetan, zenbait partida txar egitea. Hala ere, txuriz jantzi jokatzeke garaia da, eta pauso hori eman beharra daukat.

Egin beharreko galdera: buruz burukoan ikusiko al zaitugu?

Beno, itxaropena badut. Azken batean, txapelketarik garrantzitsuenan da, xarmarik handiena duena, eta pilotarioi gehien gustatzen zaiguna. Saiatuko naiz, txapelketa horretan egoten, baina hau ez da erabaki hori hartzeko unea. Orain partida batzuk jokatu beharra daukat, eta joko puntu ona lortu. Erabakia hartzeko garaia iristen denean hartuko dut, baina pixkanaka joan beharra dago, eta ez da garaia buruz burukoan pentsatzeko.

Erabakia hartzeko epe mugarik jarri al dizute?

Ez, ez daukat eperik, baina itxaropen guztia dut, hor egongo naizela. Irakusten dudanean ongi nagoela erabakia hartuko dut.

Buruz burukoan al daketak au-

reikusten dira. Zer moduz hartu duzue pilotarien artean, zortzik bakarrik jokatzearen proposamena?

Ez dakit, baina oraindik, gainera, erabakia ez da ofiziala. Badakigu,

«Pixkanaka joan behar da, ez da buruz burukoan pentsatzen egoteko garaia»

«Buruz burukoa, zortzi pertsonen bakarrik parte hartzeak alde onak eta txarrak ditu»

enpresak hori bultzatu nahian ari direla, baina oraindik ez dakigu horrela izango den edo ez.

Zuk nola ikusten duzu?

Horrela izango balitz, bere alde onak eta txarrak dituela ikusten dut. Alde batetik, zortzi pilotarik bakarrik parte hartuta, partida guztiak oso interesgarriak izango dira. Baina bestetik, behetik datozenei atek ireki behar zaizkie, eta

sistema honek, ez du ziurtatzen ate horiek zabalik egongo direnik. Boxeoan esaten den bezala, KO-ko txapelketa izango da, irabazten baduzu aurrera jarraitzen duzu, eta galduz gero, etxera.

Ofiziala ez bada ere, dagoeneko parte-hartzaileen izenak entzuten hasi dira.

Guri ofizialki ez digute esan txapelketa nolako izango den, eta, noiz hasiko den ere. Horren zain gaude. Susmoa dugu horrela izango dela, baina ez dakigu.

Datozen asteetarako egutegirik zehaztu al duzu?

Partidak enpresak berak jartzen dizkigu eta hurrengo, lehen aipatu bezala, bihar jokatuko dut. Orain garrantzitsua da inongo arazorik ez izatea, eskuetatik ongi egotea eta fisikoki ongi erantzutea partida hauetan, gero entrenatu ahal izateko. Komenigarriena da, sasoiari dagoela, astebururo partida bat jokatzea. Baina askotan ez da posible izaten, neguan behintzat. Honenbestez, ikusi beharko da, gauzak nola doazen. Hala ere, onena hori izango litzateke.

Pazko Asterako kirol ludoteka eta xake ikastaroa antolatu dituzte

Anoeta » Xakea ikasteaz gain, taula eta fitxak hartuta kalera aterako dira. Izena martxoaren 26rako eman behar da.

ERREDAKZIOA

Ate joka dugu Pazko Astea eta opor egunak izanik, Anoetako Udalak ekintza ezberdinak prestatu ditu. Apirilaren 6tik 9ra esaterako, 10:00etatik 12:30era, kirol ludoteka izango da Kiroldegian.

Izena, martxoaren 26a baino lehen udaletxean edota Kiroldegian eman behar da eta ludotekaren kostua 12 eurokoa izango da. Udalak kontu korrontetik kobratuko du eta familia ugariak %25eko beharpena izango dute eta diru-sarrerara baxuak dituzten familiek berriz, murriztapen bereziak izango dituzte.

Xakea aisialdian

Aste Santutako oporretan, xakeaz gozatu edota xakean jokatzeko ikasteko aukera izango dute anoetarrek. Alde batetik, xake taulak



Xakean ikasi eta jokatzeko aukera izango dute anoetarrek. I. GARCIA

eta fitxak hartuta kalera ateratzeko deia egin dute. Apirilaren 6tik 9ra, 17:15ean hasi eta 18:45ean bitarte, udaletxeko arkupeetan xakean jokatzeko aukera izango da. Doan izango da eta bakoitzak bere xakeko taula eta fitxak eraman behar du.

Bestetik, xakean jokatzeko ikasi nahi dutenek opor hauetan aukera izango dute. Ikastaroa Lehen Hezkuntzatik gorakoei zuzendua dago eta Hozpel kaleko udal lokarretan emango da. Kasu honetan,

martxoak 26, ostirala, baino lehen Xake Txokoa izena eman behar da. Ordutegiak aukeran daude: goizez 10:00etatik 11:00etara, 11:00etatik 12:00etara edota 12:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez 15:00etatik 16:00etara edo 16:00etatik 17:00etara. Ikastaroaren kostua 5 euro izango da eta udalak kontu korrontetik kobratuko du.

Gainera Udaletik jakinarazi nahi dute udal liburutegia itxita egongo dela Pazko astean.

13. greba egunak %91ko erantzuna izan du

ERREDAKZIOA

Goraka doa kudeaketa zuzeneko eskola publikoetako jangeletako langileen greba. Astelehenean eta atzo greba egin zuten eta Gipuzkoako langileen aldetik, %91ko erantzuna izan zuen greba deialdiak. Atzo egindako 13. grebarekin, beraien eskubideak defendatzeko azken muturreraino joateko prest daudela erakutsi dute.

Sindikatueta ordezkariek asteartean izan zuten bilera Patronalarekin baina ez ziren inongo adostasunerara iritsi. Astelehenean, hilak 22, berriz elkartuko dira eta adostasunerara iritsi daitezkeela uste dute. Hala ere, langileek grebarekin jarraituko dute eta datorren asteartean ere, beste bi egunetan, hau da, asteazken eta ostegunetan, ez dute jangelako zerbitzurik eskainiko.

Haur eta helduentzako ikastaroak Asvinenean

Aduna » Airetiko akrobaziak, trapezio arruntak edota aire-oihalen hiru eguneko ikastaroetan eman daiteke izena.

ERREDAKZIOA

Asvinenea arte eszenikoen laborategian hiru ikastaro antolatu dituzte hilaren bukaerarako. Trapezioa eta aire-oihalen inguruko ikastaroak helduentzako eta aireko akrobaziaren haurrentzako izango dira.

Trapezio arruntaren ikastaro trinkoa apirilaren 1, 2 eta 3an izango da 16:00etatik 18:00etara. Hiru eguneko ikastaroaren kostua 50 eurotako da. Irakaslea Asvin izango da eta harremanetarako

edota informazio gehiago jasotzeko zenbakia 667-223236 da. Egun berdinetan, aire-oihalei buruzko ikastaro trinkoa izango da. Ordutegia 18:30etik 20:30era izango da eta ikastaroan parte hartzeko 50 euro ordaindu behar da. Kasu honetan, Maider Yabar izango da irakaslea eta harremanetarako zenbakia 639-931930 da.

Haurrentzako akrobaziak

Maider Yabar eta Asvin irakasleen eskutik haurrek aireko akrobaziak egiten ikasteko aukera izango dute Adunan dagoen Asvinenean. Apirilaren 6, 7 eta 8an izango da 11:00etatik 13:00etara eta 50 euro ordaindu behar da hiru saioengatik. Informazioa gehiago jaso edota harremanetarako deitu 639-931930 telefonora.



Bukaera emateko, mahai-ingurua

TOLOSA » Tolosan, Emakumearen Nazioarteko Eguna-ren harira ekitaldi ezberdinak antolatu zituzten eta azken atzokoa izan zen. Aranburu jauregian izan zen mahai-ingurua eta praktika artistikoak eta feministak

izan zen jorratu zuten gaia. Bertan, alde batetik, Maria Mur artista eta Consonniko kidea eta bestetik, Estibaliz Sadaba Artista eta Erreakzioa taldeko kidea izan ziren. E. MAIZ

Laburrak

Hilaren 24ean, Nagore Franco podologoia

ANOETA » Hileroke moduan, Alkartasuna Elkartearen Nagore Franco podologoia izango da. Hilaren 24ean izango da eta 15:00etatik aurrera hasiko da bere zerbitzua eskaintzen. Izena eman du jendeak baina, oraindik apuntatu ez duenak izena eman behar du.

Kuotak ordaintzeko azken eguna hilaren 31an

ANOETA » Alkartasuna Elkartearen urte hasieran egiten den Batzar orokorra egin zuten eta jada aurtengo kuotak ordaintzeko ere jarri zituzten. Bertatik, gogorazazi nahi dute urteko kuota ordaintzeko azken eguna hilaren 31an, asteazkena bukatzen dela.

Urteurrenak

VI. urteurrena
JUAN JOXE AMENABARRO ITURRIOZ



Zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak? kausitzen al duzue maitasunik sikiera Asko al dira, asko al zarete mugaz bestaldeko erresuma hartan? (Joseba Sarrionandia)

Beti maiteko zaitugu, attona
Esti, Mari, Lander, Haitz, Joxe

I. urteurrena
JUAN GARMENDIA ZUNZUNEGI



Besarkada hestuan elkar lotuz betirako gure bihotzean

Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak

ABALTZISKETAN
2010eko martxoaren 18an

Urteurreneko meza, bihar ostirala, martxoak 19, goizeko 10:00etan ABALTZISKETAN izango da.

Nahiz gure artekin urrutira joan beti zaitugu gure bihotzean. Ez zaitugu aztuko!



Zure koadrila. Tolosan, 2010eko Maiatzaren 18an

Hasi dira AHTren lehen prestakuntzak eskualdean

Azpiegiturak » Ugane auzoan, Ikaztegieta inguruan, «txikizio izugarriak» egiten ari direla salatu du AHT Gelditu!-k.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak jakinarazi duenez, jada hasi dituzte abiadura handiko trenaren obrak Tolosaldean. Tolosako Ugane auzoan hasi dituzte, hain zuzen, Ikaztegieta inguruan.

Horiek horrela, Elkarlanak gogoratu du beste eskualdeetan aurre egin diotela, «baina ez Tolosaldean». «Iritsi da garaia Tolosaldeko proiektuari aurre egiteko. Orain arte aurka egin ez desadostasuna adierazi diegu, baina oraindik begietatik sartu gabe genuen Tolosaldean. Orain ordea, lehen prestakuntzak bistan ditugu. Batetik, haritz potoloak ditugu lurrean. Begietako mina eragiten dute eta minarekin ez jarraitzeko formula, aurre egitea da. Ezin diegu hain erraz utzi nahi dutena egiten», gaineratu du.

Era berean, Aldaba aldean obren sarbidea egiteko zuhaitz batzuk bota dituztela argitu dute. «Bestetik, itxitura bat dago. Bertan, makinaria uzteko asmoa dute la dirudi. Makinak hainbat izango lirake eta horietako batzuk kamioiak. Kamioi hauek izugarriko mugimenduak gauzatuko lituzkete. Ikaztegieta aztoratuz batik bat. Aldaba aldean tunelak eta lur mugimenduetatik ateratako hondakinak (lurra, harriak) eramateko asmoa dute, bailara asko erabat betez hondakindegia moduan. Sakana da

horietako bat, bere ingurumen osoa suntsituko dutelarik», argitu dute.

Araozak desjabetzeetan

Aipatu bezala, orain arte egindako lanak Legorreta-Tolosa zatian izan dira, Aldaba aldean. «Legorreta-Tolosa zatiko Tolosako lehen desjabetzeak 2009ko azaroan hasi zituzten eta ez zuten nahi zuten lortu, hau da, ez zuten lortu lur guztiak desjabetzea. Denbora aurrera joan ahala, eta lurjabeen

«Ez dute eskubiderik desjabetu gabeko lurretan sartzeko», dio AHT Gelditu! Elkarlanak

Uganen «baseritarren bideak makinarietarako erabili eta zuhaitzak errotik moztu dituzte»

gutxiengo eskubideak ezkatutu eta bortsatuaz, xantaiak bat bestearen atzetik eginaz, baten bat edo batzuk sinatzea lortu dute. Hala eta guztiz ere, ez dute oraindik denek sinatzea lortu. Era berean, sinatu duten batzuk ez dute oraindik ordainsaria jasotzen. Nola liteke dagoeneko lehen pausoak ematen hastea, ez baldin badaude lur guztiak behar den bezala desjabetuta?», argitu dute.

Lurjabe batzuen egoera ikusita Elkarlanak hauek «ezin ditzakegu laguntzarik gabe utzi» esan du, «beraiekin bat egin behar dugu» nabarmenduz eta pasaden otsailaren 6an Tolosa zeharkatu zuen



Tolosako Ugane auzoan, Ikaztegieta inguruan, zuhaitzak errotik moztu dituzte AHT egiteko. E.MAIZ

manifestazioa eta desjabetzeen sinatzeak gogoratu.

«Ez dute eskubiderik desjabetu gabeko lurretan sartzeko. Desjabetzea sinatu gabe edo ordainsari gabe dauden lurretan ezin dira sartu eta obrekini hasi», salatu dute Elkarlaneko kideek.

Ugane auzoko obrak

Ikaztegieta aldean, Tolosako Ugane auzoan, hasi berri dituzten obrei dagokionez bertan «txikizio izugarriak» eragiten ari direla esan du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak: «zuhaitzak errotik moztu, baseritarren bideak obretako makinariaren bidaierako erabili bertakoak aztoratuz eta abar luze bat».

Horiek horrela, Elkarlanetik «egoera hau onartezina dela» salatu dute eta gaur bertan 19:30ean Ikaztegieta liburutegian egingo duten AHT-ren egoera eta eragina Tolosaldean hitzaldira joateko gonbita luzatu dute.

Era berean, hilaren 25ean Ikaztegieta Udaletxetik Ugane auzorako martxa antolatu dute, 19:00etan abiatuko da eta egiten ari diren obrak ikusteko martxa izango dela argitu dute antolatzaileek.

«Azkenik, edozein momentutan deialdiren bat egiteko asmoa dugula azpimarratu nahi dugu; beraz, adi mobilizazioei eta animatu parte hartzera. AHT gelditzea denon esku baitago», argitu dute.

TXOTX

Rezola	Tel.: 943 556 637	Astigarraga
Ipintza baserria - Soroa Zaharra www.rezolasagardologia.com		
Oialume Zar	Tel.: 943 552 938	Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)		
Akelenea	Tel.: 943 333 333	Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com		
Gurutzeta	Tel.: 943 582 242	Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobatik) www.gurutzeta.com		
Lizeaga	Tel.: 943 468 290	Astigarraga
Gartziategi baserria, Martatzen postakaldea, 139		
Mina	Tel.: 943 555 220	Astigarraga
Txerrikietako postakaldea		
Gartziategi	Tel.: 943 469 674	Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5.0km. www.gartziategi.com		
Elutxeta	Tel.: 943 556 981	Urnieta
Ortaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria		
Larre Gain	Tel.: 943 555 846 - 616 287 867	Hernani
Larre-Gain baserria, Eretxora auzoa		
Otsua-enea	Tel.: 943 556 894	Hernani
Osiaga auzoa		
Iparragirre	Tel.: 943 550 328	Hernani
Osiaga auzoa, 10 www.iparragirre.com		
Urdaira	Tel.: 943 372 691	Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria		
Arratzain	Tel.: 943 366 663	Arratzain zahar baserria Urtzebil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com		
Urbartarte	Tel.: 943 580 119	Astau
Ergoiena auzoa		
Ohiarte	Tel.: 943 501 013	Zerain
Ohiarte baserria		
Isastegi	Tel.: 943 652 964	Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com		
Begiristain	Tel.: 943 652 837	Ikaztegieta
Itarroz baserria		
Zabala	Tel.: 943 690 774	Aduxa
Garagartza baserria (Golburu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com		
Sarasola	Tel.: 943 690 283	Aduxa
Bebalera auzoa		
Ola	Tel.: 943 623 130	Irua
Mizka auzoa, 102		
Lindurrenborda	Tel.: 948 637 212	Lesaka
Nabaz auzoa, 8		

DIEZ Autobusak

● Autobusak eta bitartekoak zerbitzu bereak
 ● Merke eta onerakotasun bereak
 ● Erreserbatzen, bilaketak, bitartekoak, ingurumenak...
 Muntzar kalea, 24 | Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 37 11 37 / 20012 DONOSTIA
 Posta elektronikoa: malala@autocoresdiez.net

Laburrak

Ibarluzearen inguruko informazioa email bidez

IBARRA ● Londreseko Euskal Elkar-ta Koordinazio Batzordeak Oxford Houseko Chapelean atxilotutako Garikoitz Ibarluzea ibartarraren inguruko informazioa eta hurrengo asteetan egingo diren elkartasun-ekitaldien berri izan nahi dutenentzat email bat ireki du: freedomforgari@googlemail.com. Ibarluzeak uko egin dio Espainiarantzeari, eta Londresen atxilotuta jarraituko du Espainiaratze auzi saiora egin bitartean. Baliteke hori datorren astelehenean egitea, hilak 22, bideokonferentzia bidez.

'Erlea' aldizkariaren gai nagusia Irlanda da

ASTEASU ● Kalean da atzotik Bernardo Atxagak zuzentzen duen Erlearen bigarren zenbakia. Gai nagusia Irlanda da eta horrexegatik aurkeztu zuten atzo, Saint Patrick egunean. Zenbaki honek bidaia bat proposatzen du, Andres Urrutia Euskaltzaindiaren lehendakariaren hitzetan: «Euskal Herriatik Irlandara, baina baita Irlandatik Euskal Herri-ara ere». Seamus Heaneyren, Paddy Woodworthen eta Jose Angel Irigarainen testuekin batera, Patxi Ezkiagaren itzulpenak bildu dituzte, besteak beste.

Peachy Joke taldea Oartzunen, gaur

TOLOSA ● Tolosako Peachy Joke taldeak argitaratu berri duen lana, *Kindergarten's Flight*, aurkezten jarraitzen du. Gaur bertan Oartzuneko Itzelan joko dute 23:00etatik aurrera, Unibertsitate festa batean. Hilaren 30ean aldez, Donostia-ko Jareño aretoan izango dira La Habitación Roja talde valentziarrarekin batera. Azken diskoan kanta dantzagarriagoak bildu dituztela diote musikariek eta baita zuzenekoak indartu dituztela ere. Bigarren lan honetan hamaika kanta bildu ditu boskoteak.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalde: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** May Gorostiagaren *May Gorostiaga... Presente!* obra, 20:30ean Topic-en.

Hitzaldia

■ **Ikaztegieta.** 'AHT-ren egoera eta eragina Tolosaldean' hitzaldia, 19:30ean, liburutegian, AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta.

Jaiak

■ **Berastegi.** Gazte Festak: 18:00etan, palako finalak; 21:30ean, herriko antzerki taldearen emanaldia eskolako gimnasioan; 23:00, kontzertuak Gazte Biltokian, Gargantas Desgarradas eta Inde Kitxen taldeekin.

Musika

■ **Tolosa.** Nongua Jazz eta Kakaue taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria I. Nafarroa etorbidea, 2. 943-65 46 10.
■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Azken agur jendetsua 'Potto'ri

Alegia » Languarre atsedenekuan 200 lagun inguru elkartu ziren bere errausak zabaldu eta pago bat landatzeko.

ERREDAKZIOA

Jose Ramon Tolosa alegiarrari, *Toloxa* eta *Potto* bezala ezaguna, azken agurra egin zioten asteburuan Languarren. Bere errausak zabaldu zituzten lekuan pago bat aldatu zuten, bere anaiaaren omenez landatutakoaren ondoan. Ekitaldi jendetsua izan zen eta 200 bat lagun inguru izan ziren atsedenekuan.

Languarrera batzuk oinez eta beste batzuk autoetan igo ziren. *Pottok* Languarre atsedenekua atontzen lan pila bat egin zuela gogoratzen dute omenaldia egin ziotenek. Bertan izan ziren eta parte hartu zuten bere senide eta lagunak, eta baita Intxurre elkarteak eta kirol elkarteak zein ezker abertzalearen ordezkariak.

Txalaparta doinuek eman zioten hasiera ekitaldiari. Ondoren agurra dantzatu zioten *Pottori* Intxurre elkarteak eta koadrilako lagunek. Elkarre horren sorreran parte hartu zuen omenduenak.

Musikak jarraitu zuen omenaldiaren ardatz izaten eta Xefe Balderdi Txintxarri abesbatzako kideak omenduen gustuko kantak abestu zituen. *Eusko gudariak* ere abestuz agurtu zuten.

Languarren jasotako agurraz gain, beste omenaldi bat ere egin zion Intxurre kirol elkarteak. Bertako kidea zen ere *Potto*, eta asteburuan Lurraldeko taldeak jokatu zuen futbol partidaren hasieran minutu bateko isilunea egin zuten bere omenez.



Omenaldian parte hartu zutenek errausak zabaldu zituzten ueua. PATXI RENOBALDES



Minutu bateko isilunea egin zuten asteburuan Intxurre futbol taldearen partidan. PATXI RENOBALDES

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	